

STARTINNOVA: DIRU ITURRIAK

Diru iturriei buruz hitz egiteko faktore asko hartu behar ditugu kontuan. Zentzua duenez, diru iturri nagusia elektrizitatearen salmenta izango da, eta akzioen salerosketa ere erabiliko dugu. Hala ere kontuan hartu behar da, enpresa sortzeko momentuan inbertsio oso potentea behar izango dugula eta hasieran lortutako etekinak oso txikiak izango direla. Inbertsio hori lortuko dugu gure boltsikotik ateratzen. Gure kasuan taldekide bakoitza 1.000.000€ inbertituko du eta hasierako urtea zaila izan arren, proiektu hau luzerako proiektua denez ez ditugu espero etekinak urte batzuk pasa arte.

Tximistak ezin ditugu kontrolatu, eta natura ematen digun energiarekin soilik lan egingo dugu. Hori etekinetan gorabeherak ekarriko digu, eguraldiaren arabera lan egingo dugulako. Enpresak edo beste bezero mota, gure programan inskribatu egingo dira, eta energiaren ordezkia dirua emango digute. Hau da, hilabeteko tasa bat ordainduko dute, energia kanala irekita mantentzeko eta gure energia izateko.

Gure enpresa akzioetan bananduko ditugu eta saldu egingo ditugu guk behar izango ditugun enpresariei adibidez garraio enpresa gure proiektua aurrera eramateko. Denboraren poderioz gure enpresaren balioa gora egingo du burtsan eta egoera hori ikusita bultzatuko ditu bezero gehiago gure enpresan inbertitu dezaten.

Donazioak gure enpresaren sektore garrantzitsu bat izango da. Nahiz eta gure enpresa, dirua lortzean oinarritu, sektore sozial bat izango du biztanleria parte har dezan proiektu ekonomiko-sozial iraultzaile honetan. Hori lortzeko "crowdfunding" izeneko finantziario metodoa erabiliko dugu. Nahi dutenok dirua emateko aukera izango dute, gure enpresaren sektore ekologikoa laguntzeko. Finantziarioak beharrezkoak izango dira, enpresak behar duen bultzada gauzatzeko.

Hauek izango ziren diru-iturrien ehuneko portzentai ideala:

Energiaren salmenta	%70
Akzioen salerosketa	%25
Donazioak (crowdfunding)	%5